



Aduna

- Ehizak uzten dituen zaborrak gehiago kontrolatzea.
- Zuhaitzik ez moztea (beharrik ez badago)
- Zuhaitzak landatzea.
- Ingurua ondo zainduta izatea.



HERRIRA BEGIRA!

Aurtengo lana amaitzeko udal ordezkariengana zuzendu gara eta hauek izan dira BASOaren inguruan egin dizkiegun proposamen batzuk!

Anoeta

- Jokabide egokiekin panel informatiboak jartzea.
- Bertako landare eta animaliei buruzko panelak jartzea.
- Egur hilaren garrantziaz kontzientziatzea.
- Biodibertsitatea areagotzea.
- Suteak ez gertatzeko garbiketa lanak mantentzea.

Tolosa

- Baso eskolarako aterpeak sortzea, euria egiten duenean arropaz aldatzeko.
- Bideak txukundu eta bidegurutzeak markatzea.
- Mendi eremu pribatuak erosi basoak modu egokian kudeatzeko eta zaintzeko.
- Herrian berdegune gehiago egokitzea haurrak eta gazteak egoteko, jolasteko ...egoteko toki naturalak

Ibarra

- Ikastolarekin naturaren gaia elkarlantzeara
- Herritarrak basoak garbi mantentzeko eta garbitzeko bultzatzea.
- Lursailak erostea.
- Animaliak, landareak eta onddoak ezagutzeko gidak eta panelak egitea.
- Jokaera egokiekin panelak jartzea.
- Herritarrak kotxea gutxiago erabiltzeko kontzientziatzea.

Alegia

- Bertako zuhaitz espezieen landaketa gehiago egitea, eskolan egin genuen bezala.
- Landatutako eremua babestea eta mantentze lanak egitea.
- Bertako basoak eta basoen onurak ezagutzeko txangoak antolatzea.
- Alegiako lurralde komun batean baso jangarriaren ideia martxan jartzea.

Asteasu

- Txorientzako jantokiak eta habiak jartzea.
- Familia giroan baso garbiketarako antolatzea, familien arteko harremana sendotzeko eta jendea kontzientziatzeko.
- Adituekin basora irteera antolatzea.
- Zuhaitzak neurrian moztea eta mozten direnean beste bat landatzea.

Villabona

- Hizkuntza desberdinetan, zaborra ez botatzeko kartelak jartzea.
- Parketan, zuhaitzak identifikatzeko txartelak jartzea.
- Lasturreko mahaiak eta bankuak aldatzea eta mantentzea.
- Mendi elkartarekin eta ikastetxeekin irteera gidatuak antolatzea.
- Eragile desberdinekin, baso eta erreka bazterrak garbitzeko auzolanak antolatzea.

Berastegi

- Bideak txukundu eta bidegurutzeak markatzea.
- Ustelduta dauden zuhaitzak botatzea, arriskurik egon ez dadin.
- Erreka igarotzeko zubiari eskulekua jartzea.

Irura

- Ingurua ezagutzeko eta garbi mantentzeko ekintzak antolatzea.
- LHko ikasleentzat baso-eskola antolatzea.
- Ehiza kontrolatzea, mendiko bideak zaintzea eta ibilbideen informazio osatzea.

Zizurkil

- Basoen garbiketa auzolanek egiteko egunak antolatzea eta behar izanez gero zakarrontziak jartzea.
- Bertako zuhaitzak landatzea.
- Herriko parkeetan zuhaitzen izenekin txartelak jartzea.